

Onuraduna

- **Enpresari indibiduala eta Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kidea** (betiere diru-laguntza norbere izenean eskatzen bada).
 - Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea, eta lantokia ere EAEn kokatzea. (*)
 - **EJZn alta emateko egunaren bezperan** langabea izatea **eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda** egotea.
 - **EJZn eta Gizarte Segurantzaren alta** eman izana **2024ko azaroaren 1etik eta dirulaguntza eskatu den egunera arteko epean**.
 - Diru-laguntzen **lerro honen** beraren **onuradun ez izana** aurreko deialdietan.
 - **Eskaera-egunean 18 urte beteta** edukitzea.
 - **Autoenplegurako** beste **dirulaguntzarik jaso ez izana**.
- (*) Baldintza horiei eutsi beharko zaie, gutxienez, diruz laguntzeko epea amaitu arte.

Zenbatekoa

- Onuradun bakoitzak, **gehienez ere, 2.500 euro** jasoko du.
- Zenbateko hori **%15ean** areagotuko da eskaera aurkezteko unean **19-29 urte** baditu eta beste **%15ean emakumea** bada.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kideen multzorako 6.000 euro izango dira, gehienez.

Diruz lagunduko diren gastuak (sustapen-, funtzionamendu- eta kudeaketa-gastuak)

- Autonomoen kuotak.**
- Komunikazio gastuak:** Publizitate- eta merchandising-kanpainak, saltoki eta ibilgailuen errotuluak, errotuluaren argiztapena eta diseinua.
- Web-orrien diseinua eta web-orrien eta sare sozialen mantentze-kuotak**, publizitate **bannerrak** beste enpresa baten web orrian, web-orrian **pluginak** sartzearekin loturiko gastuak, web-orriaren **domeinua** eta posta elektronikoa eta **Facebook** sustatzeko zerbitzuen kostua.
- Aholkularitza** (zerga-, lan-, kontabilitate- edo administrazio-arloan, arlo juridikoan edo negozioaren kudeaketaren arloan, liburu-edukitzaitzarekin eta eguneroko zerga- eta kontabilitate-arloko betebeharrekin loturikoak, lan arriskuekin loturikoak, erakusleihoak aldatzeko eta hobetzekoak...) eta **coaching**-gastuak .
- Ekintzaileak eginiko **prestakuntza-ikastaroak**, zuzenean enpresa martxan jartzearekin lotura dutenak.
- Negozio-lokalen **errentamendua**.

Gastuak 10 hilabetez diruz lagunduko dira,

- a), d) eta f) dirulaguntza eskatzen denetik zenbatzen hasita. 10 hilabete horiek hartuko dira diruz lagundutako alditzat. (autonomoen kuota, aholkularitza, coaching eta errentamendua)
- b), c) eta e) EJZn alta ematen den egunetik aurrera sortu eta ordaindutakoak, 10 hilabeteko epera arte, dirulaguntza eskatu den egunetik zenbatzen hasita (komunikazio gastuak, web-orrien diseinua eta web-orrien eta sare sozialen mantentze-kuotak, bannerrak, pluginak, domeinua eta Facebook, eta prestakuntza-ikastaroak)

Dokumentazioa

- Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez: [Eskabideari sarrera](#).
- EJZn alta ziurtagiria.
- Autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta ziurtagiria.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren eraketa dokumentua, hala badagokio.

Eskaera egiteko epea

- **2025eko irailaren 13tik 2025eko urriaren 31a** arte.

Laguntza-eskaerak ebatziko dira aurkeztutako ordenaren arabera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte